

525 eskandaluzko urte

Alperrik ikasi ote zuten urteek hegaz? Urtero berdin antzera. Igual. Urte zaharra berriztatu gura izaten dugu urtarrila jaio berrian. Hodei beltza zuritu.

Zuria, gorritu. Gorria, urdindu...

Abendu agortuan, bostehun eta hogeita bost urte ezarri dizkie Madrilek 18/98koei. Mila eta ehun orrialdeko testua idatzi du epaileak horretarako. Aieru-opereta.

Irratiak esan du ETArek erraiak hautsi dituztela epai horrekin, herensuge armatuaren bihotz-taupadak moteldu dituztela behingoagatik. Bada, ozpin apartsuarekin egin dute topa sotanarik gabeko dominikoez gabonzaharrotan.

Littell-en *Les Bienveillantes* nobela eskatologiko xamarra irakurtzen ari nintzela harrapatu ninduen epaiaren albiste ofizialak. SS taldeak deskribatzen ditu idazleak eleberrian. Bigarren Gerratean gaude. Polonia, Ukraina eta Errusia dira SS haien antzoki-oholtza. Guda-oin bihurritua, bunkerretako galdeketa-ziegak...

Bat-batean, kontrako eztarrian trabatu zait Lupiañez durangarraren tortura-salaketa. Zurezko ezpal zorrotza askatu du Inkisizio espainiarraren makilak, eta gogor astindu ditu Ibaizabalgo bazterrak.

* * *

Nekez jardun duzue aurreko artikuluetan, adiskideak. Eterno bihurtzen ari den gatazka politikoa sortzen duen neke horretaz kexu. “Nekatuta nago, betiko erroreak errepikatuak ikusteaz”, inguru hurbilera begiratu eta ozen esanda egin zenigun agur, Angel, herena.

Salbuespenak salbuespen, eta akuiladak akuilada, zerbait lehor ari da mamitzen. Akiduraren sentipena. Ezinezkotasun moduko bat dabil lau bazterretan. Noraezean doan batel honetan, ba ote darama inork lema?

Ni ere, nekatuta nago. Ikusita anaia nagusiaren apatz larriek nola txikiaren urrats xeheak suntsitzen dituzten behin eta berriz. Jada, ura bera ere ez da hormatzen izozkailuan.



J. I. Basterritz

Olsagarre

Apalategi

Nekatuta. Eta zeharo erresuminduta. Mendekuzko haizetee-kin ekin diote Madrildik Errekonkista berriari. Mairuen kontra barik, disidentzia aber- tzale organitzatuaren aurka.

Konstituziotik at... gatzik ez, diote hiriburu eta gorte hartan. *Independentzia... ala bike gorial*, hara hor bertoko guardia gorriaren arropostua. Harrapatuta gaude beraz. Tifoi baten zurrun- biloak garabiltza. Berdin da haizeak nondik jotzen duen, baldin eta erauntsia bada. Ontziaren oihalak berehala urratzen dira holakoetan.

* * *

“Denek dugu bakea gure mingainetan, nahiz herra bazkatu bihotzen barnean”, kantatu zuen behin Xalbadorrek. Hitzak higatu egin direla diozu, Ur. Indarra galdu dutela. Gatazka-edo den horretan, ahuldu egin dira berbak, kamustu eleak. Ez omen dago ezer berri esaterik.

Ametsak eurak berriztatuko balira, higituko balira, gaurkotuko, gaitz-erdi; zeren ez bailirateke hainbeste higatuko diskurtsoak. Nago, ez dugula metaforetan eta epitetoetan bakarrik asmatu behar, ezpada ze gidoietan eta argudioetan ere... ontziak zuraje berria behar baitu.

Adiskideak, San Sebastianak ate joka dauzkagu: txotxa eta kupela. Santa Ageda etorriko da ondoren: koplak eta eskea. Segituan, Espainiako hauteskunde orokorrak.

Azterketak eskoletan, San Inazio uztailan eta Santa Krutzak irailean... hautes- tontzietara deituko du Lehendakariak, mendebaldeko udagoiengan.

San Tomasetan, zerria hiltzen utziko al digu Konstituzio espainiarrak? Ala, terrorismotzat joko dute Auzitegi Nazionalen haren solomoak askatzea? Nago, urderik gabeko zerria haz dezagula nahi dutela. Disidentziarik gabeko gizartea.

Juanjo, hurrengo Olentzerotan, txalaparta eskatzeotan dabil loba. Hainbesteko oholtzarrarekin, ez dakit moldatuko ote den ikazkina asto gainean. ■



San Tomasetan, zerria hiltzen utziko al digu Konstituzio espainiarrak?

Ala terrorismotzat joko dute Auzitegi Nazionalen haren solomoak askatzea? Nago, urderik gabeko zerria haz dezagula nahi dutela.

Disidentziarik gabeko gizartea

